

The background of the entire image is a close-up, macro shot of several pinecones. The pinecones are dark brown with a textured, scaly surface. They are arranged in a way that creates a sense of depth, with some in sharp focus and others blurred in the foreground and background. The lighting is warm and directional, highlighting the intricate details of the pinecone scales.


Gabonak

2018

• UROLA KOSTAKO •

HITZA

Gabonetan, barrua loratu *Eguberri on!*




KIMU BAT
garden





• UROLA KOSTAKO • **HITZA**

Neguaeren etorrerarekin badatoz Gabonak. Festa, ekitaldi eta orotariko ekimenak izango ditugu gure eskualdeko 11 herrietan eta hemen aurkituko dituzue herriz herriko egitarauak. Merkatariek ere sari potoloak dakartzate guretzat.

Errezeta bereziren baten bila dabilenarentzat ere baditugu ideiak eta nola ez, Gabon kantak atsegin dituzten haur zein helduek ere esku artean izango dute beren urteroko bilduma.

*Gozatu , disfrutatu eta ondo pasatu
Gabonetako jaiegunak!*



ZURE OPARIA AZPEITIKO KOPISTEGIAN



/ KILIKOLOR

ZATOAZ !!



Sari potoloak aurtengo Gabonetan ere! Zorte On!!

Gabonen atarian gara, eta bertako merkatari elkarteek ekimen bereziak jarriko dituzte martxan. Herrian bertan erostearen helburuarekin, elkarteetako dendek sari potoloak dituzte zozkatzeko. Gabonetan bezeroa mimatzeko aukera paregabea izango dute eta gure kaleak girotzeko erakusleihoak apainduko dituzte.

Zu zeu izan zaitezke saridunetako bat. Sariarekin edo saririk gabe bertako dendetan erosketak egiteak badu bere xarma. Erosi bertako dendetan eta zorte on!

Jarraian, eskualdeko lau merkatari elkarteren adibideak.

Olentzero eta Mari Domingiren Ginkana.

Esku-orri bat banatu da, **BERTAN** Elkarteko 6 establezimendu ezberdinetako zigiluekin bete behar da. 1.000€ko erosketa bono bat eta 200€ko hamar erosketa bonoren zozketan parte hartu ahal izango da.

Bertaneko 6 saltoki desberdinetan egin beharko da erosketa, eta zigiluak lortu, abenduaren 3tik 24ra bitartean.

Behin esku-orria zigiluz beteta, herriko puntu ezberdinetan kokatuko diren postontzietako batean bota beharko da (Damaso auzoan, Olazko Amaren plazan, Jose de Artetxen, Sanjuandegin eta Loiolabiden).

Saridunen izenak Olentzerok aterako ditu abenduaren 24ko etorrera ekitaldian.

Erregetako zozketa

500 euroko 3 erosketa bono zozkatuko dira Azpeitiko saltokietan erosketak egiteko. Abenduaren 26tik urtarrilaren 5a bitartean zozketarekin bat egiten duten herriko dendetan, zenbakidun boletoak banatuko zaizkie bezeroei. Zozketa urtarilaren 5ean egingo da, erregeen etorreran.

Gabon parkea

Non: Izarraitz pilotalekuan.

Noiz: abenduak 26, 27 eta 28 eta urtarrilak 2, 3 eta 4.

Ordutegia: 16:00etatik 20:00etara.

Sarrera: 2 euro (Bertan Elkarteko saltokietan erosiz gero doan lortu daitezke sarrerak).





Azkoitia Visa Txartela

Abenduaren 10tik 21era Azkoitia Visa txartelarekin ordainduz gero 20 otarren zozketan parte hartzeko aukera izango da. Otarrak abenduaren 22an zozkatuko dituzte, 13:30ean, Torrezurin.

Gabonetako errifa potoloa

Urtarrilaren 5ean, gabonetako errifa potoloan 500 €-ko 3 sari zozkatuko dira.



Abenduaren 3etik 31ra bezero guztiek **MURKIL**eko elkartekide den denda batean erosketa egitean boletoa bete eta zozketan parte hartzeko aukera dute.

500 €-ko 4 eta 250€-ko beste 4 erosketa txartel zozkatuko dira Elkarteak dituen kolore bakoitzeko erosketa-txartel bat zozkatuko da.

Irabazleek saritutako balea sektore berean aldatu behar dute.

Informazio gehiago www.murkil.com webgunean.



Gabonetako Erosketa txartelak

35€ ordaindu eta 50€-ko balioa duen erosketa txartelak salgai egon dira Turismo Bulegoan. Abenduan zehar Zumaiaiko establezimenduetan erosketak egingeko balioko dute.

20.urteurrena ospatzeko zozketa bereziak dendetan:

Elkarteko dendetan zozketa bereziak egingo dira. Zumaiaiko dendetan erosketak egin dituztenen artean, 1.000€-ko bono bat eta 500€-ko 8 bono zozkatuko dira. 5.000€ sarietan.

20.urteurrena ospatzeko zozketa bereziak taberna eta jatetxeetan:

Abenduaren 17tik 21era egunero zozketa bat egingo da elkarteko kide diren jatetxe eta tabernetako bezeroen artean. Zozkatutako sariak: Champagn botila eta bi botila ardoz osatutako lotea.

Erakusleihu lehiaketa irekia



din dan don

Din, dan, don, din, dan, don!
Eguberrión!
Zorion, zorion!
Gabonak, din-dan, don!
Eguberrión!
Zorion, zorion, Gabonak gabon!

Izar bat hasi da diz-dizka zervan
berri onak zabaltzen ari zaigu munduan
Jaio da, jaio da, Jaunaren semea,
askatxo batean dago, lastoen gainea.

Aingeruak kanta, artzain onak dantza,
Jainkoaren jaiotzan bakea eta aintza!
Astoak, ja-ja-ja! Idia, mu-mu-mu!
estalpe zaharrea kantuan ari zaizkigu.

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,
izarrari jarraika biak datoz arinka.
Menditik barrena, haurtxoarengana,
artzain bakoitzak darama arkumetxo
bana.

hator hator

Hator, hator lagun etxera,
gaztaina ximelak jatera,
Gabon gaba ospatutzeko,
aitaren ta amaren ondoan,
ikusiko den/k, aita parrezka,
amaren poz atseginenez.

Eragiok, lagun, aurreko danboliñari.
Gaztainak erre artean,
gaztainak erre arten,
txipli-txapla, pum!

Gabon gaua pozik igaro dezagun.

Hator, hator lagun etxera,
gaztaina ximelak jatera,
Gabon gaba ospatutzeko,
aitaren ta amaren ondoan,
ikusiko den/k, aita parrezka,
amaren poz atseginenez.

Eragiok, lagun, aurreko danboliñari.
Gaztainak erre artean,
gaztainak erre arten,
txipli-txapla, pum!

Gabon gaua pozik igaro dezagun.

olentzero

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dela
lasterka etorri da
berri ona ematera.

Horra! Horra!
Gure Olentzero!
Pipa hortzetan duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxuakin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.

Inolaz ezin dugu
Olentzero ase
bakarrik jan dizkigu
hamar txerri gazte.
Saiheski ta solomo
makina bat este
Jesus jaio da eta
alaitu zaitezte.

Horra! Horra!
Gure Olentzero!
Pipa hortzetan duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxuakin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.



qabonak qabonak

Gabonak Gabonak, hau zorional!
Bertsotan ari zaigu gaur aitona
A ja ja, barrezka ari da amona.
Bizarzuri, bizarzuri,
mendigaiak zuri-zuri,
Zorionak, Zorionak,
bertan ditugu Gabonak.

Tximini zulotik norbait sartu da,
mutur beltz begi gorri aibalio!
Olentzero dala halaxe dio.
Bizarzuri, bizarzuri,
mendigaiak zuri-zuri,
Zorionak, Zorionak,
bertan ditugu Gabonak.

alaken

Alaken, alaken,
Ala pikula tun paire,
errespundela pikula tunpa
Jesus Maria Jainkoa zen. (Bis)

Adiskideok!
Ikusi dezue zelai horietan artzaina,
artzain txiki,
artzain handi,
artzain mutur leuna.

Alaken, alaken,
Ala pikula tun paire,
errespundela pikula tunpa
Jesus Maria Jainkoa zen. (Bis)

qabeko izar

Gabeko izar argitsuena
piztutzeakin batera
haurtxo eder bat etorri zaigu
gaur arratsean etxera.

Ordu ezkeroz etxeko denak
poztu eta zoratzen gara
haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera.

Alai eta pozik kanta dezagun
haurtxo honen etorrera
gure iluna ailaitutzeko
jaio den argi ederra.

Gaurtik aurrera atzerri hontan
zorionekuak gara
haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera.

kanta alleluia

Kanta kantari daude zervan,
kanta kantari aingeruak. (Bis)

Kanta alleluia, kanta alleluia, beti alleluia
kanta alleluia. (Bis)

Epel-epeltsu talde giroan,
aitaren eta amaren ondoan. (Bis)


Kanta alleluia, kanta alleluia, beti alleluia
kanta alleluia. (Bis)

Gaur jaio zaigu Jesus haurtxoa,
goratu dezagun jainkoa.

Kanta alleluia, kanta alleluia, beti alleluia
kanta alleluia. (Bis)



"KaNT uZ BIZI NAIZ eta
KaNTUz nAHI BiZI"





Odolki eta mango biribilkiak sagar alioliarekin

OSAGAIAK:

Biribilkientzat:

Porru bat (zati zuria bakarrik)
Arrozaren edo barazkien odolki bat
Mango bat
Oliba olio
Gatza
Brick pasta, xaflatan
Tipulin adarrak (biribilkiak lotzeko)
Gurina, urtuta

Sagar alioliarentzat:

Errege-sagar bat
Bi baratxuri ale
125 ml. Ekilore-olio
50 ml. Esnea
3 ml. Sagar ozpina edo sagardoa
Limoi baten zukua
Oliba olio (zurrusta bat)
Gatza

NOLA EGIN:

1. Porruek garbitu eta txiki-txiki zatitu behar da. Ondoren, olio pixka batekin frijituko dugu, 15 bat minutuz.
2. Odolkiari azala kendu eta papurto egingo da. Porruarekin batera 15 minutuz egingo dugu. Kurruskari eta txigortuta gelditu arte.
3. Mangoa dadoetan moztu eta beste 10 minutuz egiten utziko dugu, bigundu arte.
4. Behin hori guztia egin dugunean, epeltzen utziko dugu.
5. Brick xafla borobila bada, lauki bat egingo dugu, ertzak kenduz, eta lau zatitan banatuko dugu. Biribilki bakoitzak brick pastaren bi laukitxo edukiko ditu.
6. Pastaren laukitxo bat hartu eta urtutako gurinarekin margotuko dugu, eta beste laukitxo bat jarri eta berriro margotuko dugu gurinarekin.
7. Laukitxoaren erdian, aurrez porruarekin, odolkiarekin eta mangoarekin prestatuta dugunetik pixka bat jarriko dugu. Zapaldu egingo dugu, forma luzexka eta fin bat emanez. Biribilki forman itxi eta ertzak gurinarekin margotuko ditugu, itsatsita gelditzeko.
8. Biribilkia erditik tipulin adarrearekin lotuko dugu.

9. Labeko erretilu batean laberako papera jarriko dugu, eta aurrez labea goitik eta behetik berotuta edukiko dugu, 180 gradutan. Biribilkiak labean sartuko ditugu, eta 10-15 minutuz edukiko dira (gorritu arte).

Sagar aliolia:

1. Sagarra zuritu, zatitu eta limoi zukuarekin bustiko dugu.
2. Irabiagailuaren ontzian jarriko ditugu: baratxuriak, ozpina, gatz pixka bat, esnea, ekilore-olioaren erdia eta oliba olio. Hori guztia irabiatu, sagar zatiak gehitu eta berriro dena irabiatuko dugu. Era berean, pixkarena ekilore-olioa gehitzen joango gara emulsionatuta gelditu arte.

Aurkezpena:

Plater baten erdian biribilki batzuk jarriko ditugu, eta horien gainean beste batzuk. Inguruan, sagar alioliaren puntutxo batzuk marraztuko ditugu, tipulinaren ukitu batekin. Katilu batean, nahiko sagar alioli jarriko dugu, bertan biribilkiak busti ahal izateko.





Eusko Label baserriko txerriaren azpizuna mostazarekin eta patata purearekin (4-6 pertsona)

AZPIZUNARENTZAKO OSAGAIAK:

Eusko Label baserriko txerriaren 2 azpizun
Oliba olio birjina
Koilarakada bat gurina
2 edo 3 koilarabokada mostaza
Limoi erdia
Gatza eta Perrexila
Piperbeltz beltza
Katilu bat haragi salda
Likorren katilukada bat (Whiskya edo rona)
Arto irinaren koilarakada bat

PATATA PUREARENTZAKO OSAGAIAK:

Pertsonako bi patata
Koilarakada bat gurina
Koilarakada bat oliba olio birjina
Birrintzeko trufa
Piperbeltz beltza
Gatza

NOLA EGIN:

Azpizunarentzako:

Zartagin zabal bat su gainean jarri, eta oliba olioarekin hondo guztia estaliko da. Azpizunei gatza eta piperbeltz beltza bota, eta zartaginean jarriko dira; gorritu arte su bizian, eta behin bi aldeak gorritutakoan, sua jaitsi eta egin arte edukiko dira, 15 minutu inguruan. Azpizunak atera eta erretilu batean gordeko dira estalita, beroa gal ez dezaten.

Patata purearentzako:

Patatak zuritu eta egosten jarriko dira, gatza botata. 15-20 minutu inguruz egosiko dira. Gero, soberan duten ura kendu, eta piperbeltz beltz birrindua, gurina eta oliba olio gehituko zaizkie patatei. Sardeska batekin, papatak zapaldu eta osagaiak ondo nahastuko dira.

Saltsarentzako:

Azpizunak frijitu diren olioan bertan, likorea botako da, eta behin alkohola lurruntzen denean, limoi erdiaren zukua, gurina, haragi salda eta mostaza gehituko dira. Su baxuan edukiko da dena eta haxka batekin nahastuko. Behin saltsa loditu denean, arto irina (ur hotz pixka batean nahastuta) gehituko da. Era horretan, saltsa hobeto lodituko da. Azkenik, azpizunak erretiluan utzitako saltsa gehituko zaio aurrez prestatutako saltsa horri.

Aurkezpena:

Taula baten gainean, zentimetro bateko xerratan azpizunak ebakiko dira. Plater zabal baten gainean jarri eta saltsa erantsiko zaie. Patata purea jarriko da laguntzeko, eta gainetik trufa pixka bat birrindu eta perrexila jarriko da.



URDETxE[®]

Baserritarrok Aske Hazitako Txerria
Cerdo Criado en Libertad por Baserritarras



**Baserriko
Txerria**

Cerdo
de Caserío

Un producto · BASATXERRI · produktu bat

Basatxerri 2004 S.L. www.basatxerri.com Tfnoa: 699 09 61 61



Polboroi tradizionalak

OSAGAIK:

500g txerri manteka
250g almendra osorik
500g glacé azukrea
1kg hirina
kanela (nahi bada)

NOLA EGIN:

Almendrak eta irina labea 25 minutuz berotu eta noizean behin goilara batekin mugitu, bi aldetatik ondo gelditzeko. Labea 150°C-tan.

Manteka eta glacé azukrea ondo nahastu (Behar izanez gero irabiagailua erabili ondo nahasteko).

Almendrak xehetu eta aurreko nahasketarekin nahastu.

Irina behatu (tamizatu) eta aurrekoari gehitu.

Nahi bada kanela bota.

Arrabolarekin (rodilloarekin) masa zabaldu (1 edo 1,5 zm-ko lodiera eman).

Forma eman.

Labea 200°C-tan 20 minutuz.

*Izarri, Errege
opiletan adituak*



Egin zure erreserba!!

DENDAK:

Foruen plaza, 6
Tel.: 943-01 05 55

ZARAUTZ

Nagusia, 6

Tel.: 943-14 03 55

Herrerietta, 36

Tel.: 943-14 00 37

GETARIA

OBRADOREA:

Igarategi, 18.pabilioia

Tel.: 943-14 09 55 / Fax-a: 943-89 60 28

www.izarri.com



aia

Abenduak 21, Ostirala

18:00. Olentzeroren etorrera.

Abenduak 23, Igandea

16:00 eta 18:00. Zinema.

Abenduak 24, Astelehena

09:00. Gabon eskea, plazatik abiatuta.

18:00. Gabon eskea plazan (kaskoan).

Abenduak 26, Asteazkena

16:30 -19:00. Pintxo lehiaketa, gaztelekuan.

Abenduak 27, Osteguna

17:00-20:00. Puzgarriak.

Abenduak 28, ostirala

16:00. Olinpiadak eta txokolatada.

19:30. Triki-poteoa hasiko dute.

21:00. Bertso-trikiti afaria, Dema plazan.

21:30. Unai Mendizabal eta Sebastian Lizaso ariko dira bertsotan.

Afal ondoren, Izer eta Alabierrek girotuko dute gaua.

Afarirako txartelak salgai daude Iturriozenean, 20 euroan.

ABENDUAK 30, IGANDEA

12:00. Af Ndanza Afrikan dantza ikuskizuna, frontoian.

16:00. Futbol Txapelketa eta merendola.

Abenduak 31, Astelehena

10:00. Aiako Auto Slalom-a, Ubegunen.

17:00. San Silbestre lasterketa (izena ematea 16:30ak arte).

Urtarrilak 3, Asteazkena

16:30 eta 18:00. Zinema.

Urtarrilak 4, Osteguna

17:30. 'Gezur Gehi Egi' magia ikuskizuna.

19:00. Bizar Zuriren etorrera.

Urtarrilak 5, Ostirala

18:30. Errege magoen desfilea.



aizarnazabal

Abenduak 21, ostirala

Gaztetxeko postal lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna. Gaia: Zerk egiten zaitu zoriontsu? (Postalak buzoian utzi).

Abenduak 24, Astelehena

Goizean, Gabon eskea.

Eguerdian, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

Abenduak 28, Ostirala

17:00. 'Ongi etorri lagun' antzezlan, Atari Soro frontoian.

Urtarrilak 2, Asteazkena

18:00. Erregeen laguntzaileak, udaletxean.

Urtarrilak 5, Larunbata

18:00. Errege magoak, Atari Soro frontoian.



azkoitia

Abenduak 21, Ostirala

18:00. Bizkargi musika eskolaren Gabonetako kontzertua, Elkargunean.

22:00. 'Robin Hood' filma, Baztartxon.

Abenduak 22, Larunbata

12:00. Kirolari Onenaren sari banaketa, udaletxean.

13:30. Gabonetako erakusleihen lehiaketaren sari banaketa eta Herrixen elkarteko zozketako otarren banaketa, Torre Zurin.

22:00. 'Robin Hood' filma, Baztartxon.

Abenduak 23, Igandea

12:00. XXIX. Gabon Kantak, Baztartxon.

17:15. 'El grinch' haurrentzako filma, Baztartxon.

19:30. 'Robin Hood' filma, Baztartxon.

Abenduak 24, Astelehena

10:30. Jaiotza eramangarriak, Kontzejupean.

11:00. Gabon eskea, ludotekatik.

12:00. Olentzerori ongi etorria, eliz atarian.

18:30. Musika bandaren eta Iraurgi abesbatzaren kontzertua, Kontzejupean.

Abenduak 25, Asteartea

19:30. 'Robin Hood' filma, Baztartxon.

Abenduak 26, Asteazkena

11:00-13:00 eta 16:00-20:00. Gabonetako parkea (1-12 urte), Elkargunean.

Abenduak 27, Osteguna

11:00-13:00 eta 16:00-20:00. Gabonetako parkea (1-12 urte), Elkargunean.

Abenduak 28, Ostirala



HERRIXEN *Gabonak*

ABENDUAREN **10** ETIK **21** ERA

Azkoitia Visa txartelarekin ordainduz,

GABONETAKO
20 otarren
ZOZKETA

URTARRILAREN **5** EAN

Gabonetako Errifa potoloa:

500 eurotako
3 sari
zozketatuko dira

Otarren sari banaketa: Abenduak 22, larunbata, Torrezurin 13:30ean.





11:00-13:00 eta **16:00-20:00**. Gabonetako parkea (1-12 urte), Elkargunean.

22:00. 'Climax' filma, Baztartxon.

Abenduak 29, Larunbata

16:00 eta **18:30**. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia, Baztartxon. 'Musua' ikuskizun berria eskainiko dute.

Abenduak 30, Igandea

17:15. 'Ralph rompe internet' haurrentzako filma, Baztartxon.

19:30. 'Mi amor perdido' filma, Baztartxon.

Abenduak 31, Astelehena

Txalkor txistulari taldearen eta Musika Bandaren urte bukaerako kalejira.

12:30. Musika Bandaren kontzertua, Kontzejupean.

Urtarrilak 1, Asteartea

19:30. 'Mi amor perdido' filma, Baztartxon.

Urtarrilak 2, Asteazkena

09:00-13:00. Teknologia berrien tailerrak (LH5-DBH2), Elkargunean.

17:00. Egur taupadak, Elkargunean.

09:00-13:00 eta **15:30-18:00**. Gazte astea, Topalekuan.

10:00-12:30 eta **16:00-18:30**. Negunebai ekintzak, Ludotekan.

Urtarrilak 3, Osteguna

09:00-13:00. Teknologia berrien tailerrak (LH5-DBH2), Elkargunean.

17:00. Indi-Muggie, Elkargunean.

09:00-13:00 eta **15:30-18:00**. Gazte astea, Topalekuan.

10:00-12:30 eta **16:00-18:30**. Negunebai ekintzak, Ludotekan.

Urtarrilak 4, Ostirala

09:00-13:00. Teknologia berrien tailerrak (LH5-DBH2), Elkargunean.

09:00-13:00 eta **16:00-19:30**. Gazte astea, Topalekuan.

09:45-17:45. Negunebai ekintzak, Ludotekan.

19:00. 'Gau magikoa' musikala, Baztartxon.

Urtarrilak 5, Larunbata

16:30. Erregeen laguntzaileek eskutitzak jasoko dituzte, eliz atarian.

19:30. Errege magen desfilea.



azpeitia

Abenduak 21, Ostirala

Santo Tomas eguna, egun osoan zehar: txorizo eta talo postuak, azoka berezia, herri kirolak, bertsolariak, Euskal Antzerki Topaketen sari banatzea, dantza suelto txapelketa...

Abenduak 22, Larunbata

09:00-18:00. Azpeitia Cup txapelketako aurreafasea, Garmendipe futbol zelaian.

19:00. Grande Days eta Ruben RG taldeen kontzertua, Sanagustinen.

19:30. 'Christopher Robin' haurrentzako filma, Soreasun.

Abenduak 23, Igandea

09:00-18:00. Azpeitia Cup txapelketako aurreafasea, Garmendipe futbol zelaian.

12:00. Azketa ahots taldearen eta Julian Barrenetxea abesbatzaren Gabonetako kontzertua, Sanagustinen.

16:30 eta **19:30**. 'Christopher Robin' haurrentzako filma, Soreasun.

Abenduak 24, Astelehena

12:00. Olentzero ibiliko da kalerik kale, herriko ikas-tetxeetako ikasleek lagunduta. Aurten, berrikuntza ugari izango du Olentzeroren etorrerak.

18:30. Jaiotza, herriko kaleetan zehar.

Abenduak 25, Asteartea

13:00. Udal musika bandaren Eguberriko kontzertua, Sanagustinen.

Abenduak 26, Asteazkena

16:00-20:00. Gabon parkea, Izarraitz pilotalekuan.

Abenduak 27, Osteguna

16:00-20:00. Gabon parkea, Izarraitz pilotalekuan.

Abenduak 28, Ostirala

16:00-20:00. Gabon parkea, Izarraitz pilotalekuan.

23:30. Salsa, bachata, kizomba eta txax-txa-txa doinuekin dantzatzeko aukera izango da, Sanagustinen.

Abenduak 29, Larunbata

09:00-18:00. Azpeitia Cup txapelketako aurreafasea, Garmendipe futbol zelaian.

19:30. 'El cascanueces y los cuatro reinos' haurrentzako filma, Soreasun.

23:00. Vulk eta Kaskezur taldeen kontzertua, Sanagustinen.

Abenduak 30, Igandea

16:30 eta **19:30**. 'El cascanueces y los cuatro reinos' haurrentzako filma, Soreasun.

Abenduak 31, Astelehena

11:00 eta **12:00**. San Silbestre lasterketa herrikoia, eta ondoren proba nagusia, Plaza Nagusitik hasita.

Urtarrilak 2, Asteazkena

16:00-20:00. Gabon parkea, Izarraitz pilotalekuan.

*Zorionak eta
urte berri on!*

*Bertan bizi,
bertan erosi*



Eskadri, argazki, liburuen
Bertan





Urtarrilak 3, Osteguna

16:00-20:00. Gabon parkea, Izarraitz pilotalekuan.

19:00. Hoi denk zirkuel, Gaztetxean.

Urtarrilak 4, Ostirala

16:00-20:00. Gabon parkea, Izarraitz pilotalekuan.

17:30. Errege magoen laguntzaileek eskutitzak jasoko dituzte, udaletxeko arkupeetan.

22:30. Izei eta Deus Ez taldeen kontzertua, Sana-gustinen.

Urtarrilak 5, Larunbata

17:00. Errege magoen etorrera, Lasaora.

17:30. Azpeitiko Trenaren museora iritsiko dira.

19:00. Errege magoen desfilea, herrian zehar.

beizama

Eguna zehazteko

18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Kolarpean. Ondoren, Natur Eskolan, haurrek gutunak emango dizkiete eta abestu egingo diete. Gero, afari-merienda egingo dute Ostatu Zaharrean.

Informazioa eguneratua:

www.beizama.eus



errezil

Abenduak 21, Ostirala

9:30. Olentzero etorrera, herriko eskolara. Haurrekin harekin egoteko aukera izango dute.

Abenduak 24, Astelehena

9:00. Gabon eskea, plazatik abiatuta. Aurten, eskolako umeez eta gurasoez gain, gainontzeko herritarrek ere haiekin kantuan ibiltzeko aukera izango dute.

Urtarrilak 2, Asteazkena

16:00-19:00. Jolasak, Akertxokon.

Urtarrilak 3, Osteguna

16:00-19:00. Eskulanean tailerra, Akertxokon.

Urtarrilak 4, Ostirala

16:00-19:00. Zinema, Akertxokon.



getaria

Abenduak 24, Astelehena

18:30. Herriko taldeak kalez kale kantari ibiliko dira. Olentzeroren etorrera.

Abenduak 26, Asteazkena

09:00-13:30. Eguberrietako kanpamentuak 6 eta

12 urte arteko umeentzako, Cristobal Balentziaga musean.

Abenduak 27, Osteguna

09:00-13:30. Eguberrietako kanpamentuak 6 eta 12 urte arteko umeentzako, Cristobal Balentziaga musean.

Abenduak 28, Ostirala

09:00-13:30. Eguberrietako kanpamentuak 6 eta 12 urte arteko umeentzako, Cristobal Balentziaga musean.

Urtarrilak 4, Ostirala

18:30. Bizarzuriaren etorrera, plazan.

Urtarrilak 5, Larunbata

18:00. Errege magoen desfilea, San Anton menditik hasita.



orio

Abenduak 22, Larunbata

22:00. Herribil ekitaldia, karela kiroldegian.

Abenduak 24, Astelehena

10:45. Haurren kalez kaleko kantu saioa, ikastola ondoko plazan hasita.

11:00. Ikastolako DBHko ikasleen tonbola, plazan.

17:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, herriko plazara.

Abenduak 25, Asteartea

19:00. Ikatza Fest, Etxeluze gaztetxean. Hedor, Ma-

Azkuelek



Araba kalea, 41

ZARAUZ (Maxi Eraski ondoan)

943-13 04 33 • 619 52 35 39

www.azkuelek.com





nagaitz, Ira et Decessus eta Optika taldeek joko dute.

Abenduak 28, Ostirala

11:00-13:30 eta **16:30-19:30**. Gabonetako haur parkea, Karela kiroldegian.

19:30. Gospel kontzertua, San Nikolas elizan.

Abenduak 31, Astelehena

11:30. Haurren San Silbestre lasterketa, ikastola aurretik abiatuta.

12:00. Helduen San Silbestre lasterketa, ikastola aurretik abiatuta. Izen ematea: Karelan.

Urtarrilak 5, Larunbata

11:00. Bizarzuri kalez kale ibiliko da gutunak jasozten.

Egurdian, Bizarzuri plazara iritsiko da.

17:00. Errege magoen desfilea, herrian.

zarautz

Abenduak 21, Ostirala

Egun guztian zehar, Santo Tomas eguna: txistorra banatuko da Zurekin elkarteko tabernetan.

17:00. Jaiotza eramangarrien XXI. lehiaketa eta Olentzero eramangarrien VI. lehiaketa eta erakus-

keta, Villa Mundan.

18:30. III. Ramon Serras argazki lehiaketa, Euskalduna tabernan.

Abenduak 22, Larunbata

Goizean, Bankoa Credit Agricole-El Diario Vasco pilotatxapelketaren finalak, Aritzbatalde pilotalekuan.

12:00. Bisita gidatua, Talai Berri txakolindegian.

12:00. Bisita gidatua, Rezabal txakolindegian.

17:00. Jaiotza eramangarrien XXI. lehiaketa eta Olentzero eramangarrien VI. lehiaketa eta erakusketa, Villa Mundan.

17:30. Jolasak Txurrukako begiraleekin eta haurrentzako txistorrada, Musika plazan. Eurria bada, gaztelekuan.

21:00. Zarautz Skate Night, Lege Zaharren enparantzan.

Abenduak 23, Igandea

10:00. Hondartzako 75. futbol txapelketa (helduena).

10:30 eta **12:45**. 'Zarautz eta Zarauz. Zarauzko historia antzeztua' antzeztutako bisita gidatua, herrian zehar.

11:30. Ipuin musikatua 2 eta 7 urte arteko haurrentzat, Imanol Urbieta musika eskolan.

17:00. Jaiotza eramangarrien XXI. lehiaketa eta Olentzero eramangarrien VI. lehiaketa eta erakusketa, Villa Mundan.

Abenduak 24, Astelehena

Egun guztian zehar. Olentzeroren festa, Santuiturri plazan: 10:30etan, haurrentzako txokoa; 12:30etan, herri kirolak; 16:45etan, ipuin kontalaria; ondoren, Olentzeroren etorrera.

18:30. Schola Cantorum abestuko du, Narros jauregian.

Abenduak 25, Asteartea

11:00. Schola Cantorum abestutako meza, Santa Maria la Real parrokian.

12:30. Zarautz abesbatzak abestutako meza, Fran-

tziskotarren elizan.

12:30. Zarauzko Musika Bandaren kontzertua, Merkatu plazako 1. solairuan.

Abenduak 26, Asteazkena

16:30-19:00. Gabonetako haur parkea (aniztasun funtzionala dutenen haurrentzat soilik), Aritzbatalde kiroldegian.

Abenduak 27, Osteguna

11:00-13:30 eta **16:30-19:00**. Gabonetako haur parkea, Aritzbatalde kiroldegian. Gaztelu puzgarriak (7 urtera artekoentzat) eta jolasak (8-12 urte bitarte-koentzat).

Abenduak 28, Ostirala

11:00-13:30 eta **16:30-19:00**. Gabonetako haur parkea, Aritzbatalde kiroldegian. Gaztelu puzgarriak (7 urtera artekoentzat) eta jolasak (8-12 urte bitarte-koentzat).

Abenduak 29, Larunbata

Zarautz Noseriding jaia, hondartzan. Surf (longboard) txapelketa herrikoia.

11:00. Bisita gidatua, Talai Berri txakolindegian.

12:00. Bisita gidatua, Rezabal txakolindegian.

10:00-18:00. Ur jolasak, Aritzbatalde kiroldegian.

10:00 LH6. 12:00 LH5. 16:00 LH4. 18:00 LH3.

Abenduak 30, Igandea

10:30 eta **12:45**. 'Zarautz eta Zarauz. Zarauzko historia antzeztua' antzeztutako bisita gidatua, herrian zehar.

16:00 eta **18:00**. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia, Aritzbatalde kiroldegian. 'Musua' ikuskitun berria eskainiko dute.

22:00. Tormenta en el jardin taldearen kontzertua, Marina Txiki tabernan.

Abenduak 31, Astelehena

17:00. San Silbestre lasterketa herrikoia (gaztetxoenak), Musika plazatik hasita.

18:00. San Silbestre lasterketa herrikoia (hel-

GABONAK

2018

NAVIDAD



ABENDUAK

:

3 - 31



MURKIL
Zarauzko
Dendarien elkarte

www.murkil.com

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

TURISMO, ENERGIAREN
ETA KONTUAKO SARAI



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Harapaina honetako baldintzak www.murkil.com webgunean ikus daitezke. Esta campaña esta sujeta a las bases que se pueden ver en la página web www.murkil.com.



duena), Musika plazatik hasita.

18:30-20:30. Txaranga batek kaleak girotuko ditu.

Urtarrilak 1, Asteartea

11:30. Schola Cantorumek abestutako meza, Santa Maria la Real parrokian.

Urtarrilak 4, Ostirala

11:00. Bisita gidatua, Talai Berri txakolindegian.

18:00. Bizarzuri, Lege Zaharren enparantzan.

Urtarrilak 5, Larunbata

12:00. Bisita gidatua, Rezabal txakolindegian.

18:00. Errege magoen desfilea, herrian.

Urtarrilak 6, Igandea


11:30. Schola Cantorumek abestutako meza, Santa Maria la Real parrokian.

12:00. Mutxikoak, Musika plazan.

Egunero

11:00-13:30 eta **17:00-20:00.** Errefuxiatuen aldeko bigarren eskuko azoka, Manzaneko lokalean (Nagusia, 30). Abenduaren 15etik urtarrilaren 5era, egunero.

18:00-21:00. Gabonetako jaiotza, Narros jauregian. Urtarrilaren 6ra arte, egunero.



zestoa

Abenduak 20, Osteguna

Gabonetako apaingarrien tailerra LHko 3. zikloko ikasleentzat, Gaztelekuan.

Abenduak 21, Ostirala

Eskulanak, gaztelekuan.

Abenduak 24, Astelehena

11:00. Gabon kantak abestuz kalejira katekesi taldekoekin, Kultur Etxetik irtenda.

Egurdian, Musika bandaren eta gabon abesbatza-ren kontzertua, udaletxe azpian.

17:00. Gabon abesbatzak gabon kantak abestuko ditu herrian zehar.

18:00. Olentzeroren etorrera, plazan.

Abenduak 26, Asteazkena

Soro Peria, egun osoan zehar: diana, barazki eta fruitu lehiaketa, ezti lehiaketa, Zestoako gazta eta sagardo lehiaketa, postuak, artisauak, kirol jaialdia...

Urtarrilak 5, Larunbata

18:30. Errege magoen desfilea.



zumaia

Abenduak 20, Osteguna

21:00. Gabon koruaren entsegu irekia, Oxford aretoan.

Abenduak 21, Ostirala

Arratsaldean, Santo Tomasak, Alai auzategian.

Abenduak 22, Larunbata

19:00. ZUMB Musika Banda eta Zukan-en Gabonetako kontzertua, Zumaianen.

Abenduak 24, Astelehena

9:00-14:00. Areto futbol txapelketa azkarra, kiroldegian.

Egurdia bitartean, 'Niño Jesusen' eskea.

15:30. Gabon koruaren saioa, kalez kale.

18:00. Gabon kanten lehiaketa, Eusebio Gurrutxaga plazan.

18:00. Olentzero eta Gomezagoren etorrera, Goiko Torretik hasi eta herrian zehar.

18:00. Jaiotza ikuskizuna, Eusebio Gurrutxaga plazan.

Abenduak 27, Osteguna

18:00. Xake txapelketa, Oxford aretoan.

22:00. 'Hereditary' zine foruma, Aita Marin.

Abenduak 28, Ostirala

17:30. Ipuin kontaketa 4 eta 8 urte arteko haurrentzat, haur liburutegian.

22:00. Bertsolari gazteen saioa, Oxford aretoan.

Abenduak 29, Larunbata

17:30-19:30. Astinduren dantza tailerra gaztetxoentzat, Zumaianen.

Abenduak 31, Astelehena

12:00. San Silbestre lasterketa.

Urtarrilak 2, Asteazkena

Gabonetako parkea, kiroldegian.

Urtarrilak 3, Osteguna

Gabonetako parkea, kiroldegian.

11:00-13:00. Kimikarin zientzia ginkana 6 eta 12 urte arteko gaztetxoentzat, Oxford aretoan.

Urtarrilak 4, Ostirala

18:00. Errege magoentzat eskutitzak jasotzea, Eusebio Gurrutxaga plazan.

Urtarrilak 5, Larunbata

18:30. Errege magoen desfilea.

Irabazazi 5.000€

Sari 1
1.000€

8 sari
500€



Zumaiako merkatari eta ostalari elkartea
20. urteurrena

ABENDUAREN 10ETIK 31RA

**Egin erosketak Zumaiako establezimenduetan
eta parte hartu zozketan.**



Zumaiako Udala



CAJA RURAL

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



GERTU

ZUMAIAKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA





ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

ZUMAIAKO INSTITUTUA

Urte berrirako bizipoza,
maitasuna eta ametsak
opa dizkizuegu

